



LESBOSEKO ERREFUXIATUEI BURUZKO ERAKUSKETA BAT ANTOLATU DU AIETEK

Aieteko Kultura Etxeak Javi Julio argazkilarikazetari donostiarraren argazki erakusketa bat antolatu du Greziako Lesbos uhartera iristen diren pertsona errefuxiatuen egoerari buruz.

“Lesbos, Europarako lehen urratsa” izenburuarekin, udazkenean egindako 29 argazki jaso dira erakusketan eta beren herrialdeetako gerra eta miseriatik ihesi doazen errefuxiatuek Turkiako eta Greziako kostaldeak bereizten dituzten 7 kilometroak gurutzatzerakoan jasan behar izaten dituzten zailtasunak ikus ditzakegu.

Lankidetzako zinegotzi Duñike Agirrezabalagak adierazi du “Europar bertan bizi dugun drama hori ikusi eta horretatik ikasi behar dugu. Errealitateari bizkarra ematea, begiratu ere egin nahi ez izatea, ez da arazoa konpontzeko bide bat. Pertsonen buruz ari gara hizketan, bizimodu hobea lortzeko, geure arazoak ere izan arren guk dugunaren antzekoa lortzeko itxaropena duten gizakiez.”

“Lesbos, Europarako lehen urratsa” erakusketak Siriako gerraren ondorioz sortu den giza krisia eman nahi du ezagutzera eta, aldi berean, egoera horren aurrean munduko agintariek erantzunik ez ematea salatu nahi du. Erakusketa honen bidez krisialdi honetan gertatzen ari dena hobeto ulertzeko aukera izango dute herritarrek eta Siriako eta Afganistaneko gerretatik ihesi doazen guztiak jasaten ari diren baldintza gogorak zenbaterainokoak diren jakingo dute.

Erakusketa ekainaren 30ean irekiko da Aieten herritar guztientzat eta irailaren 4ra arte izango da zabalik. Uztailaren 1ean izango da erakusketaren inaugurazio ofiziala eta Kultur Aniztasunaren Bulegoaren eta Herri Partaidetza Zerbitzuaren lankidetzaz izango du, eta baita Donostia Kulturarena ere.

Argazkien egile eta Nervifoto taldeko kide Javi Julio berak bi bisita gidatu egingo ditu eta Lesbos uhartean ikusitakoaren eta bizitakoaren xehetasunak azalduko ditu; hasten duten bidaia eta asiloa eta nazioarteko babesaren behar duten pertsonen jasaten dituzten bizi baldintzak kontatuko dizkigu.

Bisita gidatu horiek uztailaren 1ean egingo dira 12:30ean eta uztailaren 13an 11:30ean Aieteko Kultura Etxean. Izena emateko: **943481732** - KulturAniztasuna@donostia.eus

GANI MIRZO MUSIKARI KURDUAREN KONTZERTUA

Orain dela gutxi pertsona errefuxiatuen Mundu eguna ospatu dela eta, Donostiako Udalak Kultur Aniztasunaren eta Lankidetzaz Bulegoaren bidez eta Aquariumarekin lankidetzaz Gani Mirzo musikari kurdu-siriarraren kontzertu bat antolatu du. Kontzertu hori Aquariumeko auditoriumean egingo da ekainaren 30ean, osteguna, 20:00etan.

Gani Mirzo Ekialdeko eta Mendebaldeko soinuak nahasten jakin duen musikari bat da eta maisutasunez jotzen du laute musika tresna. Kurduen musikaren, ekialdekoaren, flamenkoaren eta Jazzaren funtsa etengabe ikertzen aritu delako da ezaguna. Hiru album argitaratu ditu, eta gaur egun laukote bat osatzen du Neila Benbey abeslari aljeriarrarekin batera.

Film dokumental ezagunetarako soinu bandak egin ditu, adibidez Alberto Arce zuzendariaren "Al Mesalla, pacifisten a l'Iraq" lanean, Eylem Kaftan zuzendari kurduaren "Vendetta Song" lanean, edo musika onenaren Max Sarirako izendatu zuten Els Comediants Antzerki taldearen Les 1000 nits lanean.

Bere azken diskoa Irakeko Kurdistanen dagoen Domiz errefuxiatuen esparruari eskaini dio. Esparru horretan 100.000 pertsona errefuxiatu baino gehiago bizi dira eta artista honen senideetako batzuk ere han daude.

Gurutze Gorriaren kutxa bat jarriko da Libanoko pertsona errefuxiatuen proiektu baterako xedatuko diren borondatezko ekarpenak egiteko.

Kontzerturako sarrera librea eta doakoa izango da, edukiera mugatua da eta atak 19:30ean irekiko dira.

